

Eskola sistema, familia eta Giza Eskubideak eraldatzen ari den gizartean

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Eider Goiburu Moreno

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai hau Modulu Generikoan (MG) kokatzen da eta, modulu honetako beste ikasgaiekin batera, formazio psikopedagogikoa eta didaktikoa eskaintzen du.

Ikasgai honetan testuinguru soziala, familia eta hezkuntzaren arteko harremana aztertuko dugu giza eskubideak kontuan izanik eta ikuspegi kritikoa sustatuz. Hau da, informazioaren gizarte globalean irakasleen zeregina kokatzen jakiteko tresnak landuko ditugu. Aldi berean, sozializazio agente ezberdinekin harremanak modu egokian kudeatzeko baliabideak garatuko ditugu.

3. Konpetentziak

- Familia-eredu formalean eta hezkuntza-ereduetan gertatzen diren aldaketen eta gure gizartean eragiten ari diren desinstituzionalizazio- eta indibidualizazio-prozesuen arteko harremanak ezartzea, baita irakasle komunitate eta familien arteko harremanetan dauden zailtasunen artekoak ere.
- Testuinguru sozialaren, familiaren eta hezkuntzaren arteko harremana aztertzen eta horri buruz gogoeta kritikoa egiten jakitea, giza eskubideak kontuan hartuta.
- Ikasgeletan eta ikastetxeetan familiekiko harremanak egoki kudeatu eta gidatzeko behar diren trebetasunak garatzea.
- Gizarte testuinguruaren, familiaren eta hezkuntzaren arteko harremana aztertzen eta horri buruz gogoeta kritikoa egiten jakitea, giza eskubideak kontuan hartuta.

4. Ikas-emitzak

- Etengabe aldatzen den gizartean hezkuntzak duen papera ulertzeko gaitasuna du ikuspegi kritikotik.
- Hezkuntza testuinguruarekin harremantzeko gai da.
- Familien funtzio hezitzailea ulertzeko gai da eta hauekin harremanak kudeatzeko baliabideak ditu.
- Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatzen du.
- Euskal Herriko hezkuntza sistemaren ibilbide eta ezaugarriak identifikatzen ditu.
- DILAN. Ikasitakoa era integratuan aplikatzen du egoera konplexu batean eta taldean lan egiteko gaitasuna erakusten du.

5. Edukiak

1. gaia: Hezkuntza-sistema eraldatzen den jendartean.
2. gaia: Familia eta hezkuntza.
3. gaia: Hezkuntza eta giza eskubideak.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Aguirre, A. M., Samada, C., del Carmen, M., Fernández, S., & Silvero, M. (2016). Familia, escuela y sociedad: Manual para maestros. Universidad Internacional de La Rioja.
- Assadourian, E. (2017). Educación Ecosocial: cómo educar frente a la crisis ecológica. Informe Anual del WorldWatch Institute, Educación ecosocial, 25-49.

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>

 : goimailako
: online
: institutua

[<https://www.fuhem.es/wp-content/uploads/2018/04/SitMundo-2017-EducacionEcosocial-E.Assadourian.pdf>]

Castells, M. (1997). La era de la información Vol 1: La sociedad red. Alianza, Madrid.

Castells, M. (1998). La era de la información Vol 2: El poder de la identidad. Alianza, Madrid.

de Bringas, A. M. (2006). Giza eskubideen hezkuntzaren teoria eta praktika (Vol. 8). Alberdania.

Imaz Bengoetxea, J. I. (2019). Hezkuntzaren Soziologia. UEU.